

Krisi ekonomikoa, kultur ondarea eta museoak

XIV. kongresua

2018ko urriaren 18 eta 19a

Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa, Euskal Herria)

Lehendabiziko zirkularra



UNIVERSITAT DE
BARCELONA



UNIVERSITÉ
TOULOUSE III
PAUL SABATIER

2008ko Lehman Brothers banketxearen porrotak egungo krisi finantzarioaren eta ekonomikoaren abiapuntua erakusten du. Depresio Handiaz geroztik izan den krisi larrienez jo dute, eta bere ondorioak oso kaltegarriak izan dira: aurrekontu publikoetan murrizketak, herstura neurriak, langabezia, zorpetzea, kontsumoaren uzkurdura, pobrezia, desberdinkeriak areagotzea... 2009ko uztailaren 9an Nazio Batuen Batzar Orokorrak azaldu zuen moduan, krisiak ondorio sozial, politiko eta ekonomiko latzak izan ditu. Zalantzarik gabe, kultur arloak, orokorrean, eta kultur ondareari dagokion eremuak, bereziki, jasan izan dituzte ondorio horiek ere.

Nahiz eta herrialde batzuek kultur arloan eta kultur ondarearen eta museoaren azpi-arloan finantziario publikoaren maila mantendu, gehienek murriztu egin dute gogor. Hori dela eta, ondare- eta museo-ekimenen kopurua eta tamaina gutxitu egin dira nabarmen. Gutxitze hori areagotu egin da kultur kontsumoak, dohaintzak eta babesak baita murriztu egin direlako ere. Beraz, ondare- eta museo-arloa *birsortze* egoera batean aurkitzen da, estrategia eta ekimen berriak abiaraziz.

Dena dela, finantziario publikoari dagokionez, murrizketa ez da gertatu krisiak eragindako kontu ekonomikoengatik bakarrik. Murrizketa horrek zerikusirik dauka XX. mendearen bukaeran ezarritako politika neoliberalen ondorioz sortarazitako arrazoi

ideologikoekin ere. Politika horiek Estatuaren esku-hartze txikiago izatea defendatzen dute kultur arloan. Beraz, krisi ekonomikoak, aurreko mendean abiatutako joerak baino ez ditu areagotu.

Hau dela eta, kongresu honen helburua honako hau izango da: krisi finantzarioak eta ekonomikoak eraginda, kultur ondare- eta museo-arloan jorratzen ari diren politika, estrategia eta ekimen berriak aztertzea eta horiei buruz eztabaidatzea. Bereziki, honako gaiei ekingo zaie:

- Krisi finantzarioak eta ekonomikoak eraginda, ondare- eta museo-politika berriak.
- Kultur ondasunen kudeaketa publikoan aldaketak.
- Krisiaren ondorioak eta eraldaketak, ondare- eta museo-eremuarekin zerikusirik duten kultur kontsumoan, dohaintzetan eta babesetan.
- Kultur ondasunak zaintzeko, kudeatzeko eta zabaltzeko estrategia berriak.
- Ondare- eta museo-azpiegituren kudeaketan aldaketak.
- Ondare- eta museo-arloko lan merkatua: krisiaren ondorioak eta aldaketak.

Kongresuak bi atal izango ditu. Alde batetik, ponentzi konbidatuak izango dira eta, bestetik, komunikazio askeak.

Komunikazioen proposamenak bidaltzeko epea **2018ko ekainaren 4an** bukatuko da.

Harremanetarako helbidea: actividades.oiasso@irun.org

Antolakuntzak komunikazio-egileei jakinaraziko die berain proposamena jaso duela.

Komunikazioen ezaugarriak:

- Komunikazioen proposamenek erantzun beharko diete deialdian azaltzen diren erantzun bati edo batzuei.
- Proposamen guztiak kasu-azterketetan oinarrituko dira.
- Proposamenak honako lau atal izan beharko ditu **nahitaez**: a) helburuak, b) erabilitako hurbilketa teorikoa eta metodologikoa, c) ikerketa kasuaren edo proiektuaren deskribapena, eta d) bibliografia.
- Proposamenaren tamainak, lau atal horiekin, 800 eta 1.000 hitzen artekoa izan behar du.
- Hizkuntz ofizialak gaztelania, euskara eta frantsesa dira.

Komunikazioen hautaketa:

- Unibertsitateko eta museoko adituek osatuko dute hautaketa batzordea.
- Guztira, 8 komunikazio onartuko dira.
- Hautaketa ekainean egingo da.
- Hautatutako komunikazioen idazlanak 2018ko urriaren 18a baino lehen bidali beharko dituzte egileek.
- Komunikazioa argitaratu ahal izateko, egileak kongresuan azaldu beharko du nahitaez.
- Komunikazioen luzapena 7.000-7.500 hitzekoa izango da.
- Argitaratzeko irizpideak onartutako proposamenei bidaliko zazkie.

Informazio gehiago: 943.63.93.53 – actividades.oiasso@irun.org

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



donostiakultura.com



ICOM
consejo
internacional
de museos
España



CRESCO
Centre de Recherches Sciences Sociales Sports et Corps